

BALOREZKO PROPOSAMENA

Euskal Herrian gaur egun pertsona askok arazoa izaten dute beren kotxea aparkatu ahal izateko, izan ere, blokez osaturiko apartamentuetan bizi gara. Horrenbestez, pertsonak ez dituzte garaje propioak izaten. Horrek kotxe elektrikoak kargatzeko zailtasunak izatea ekartzen du.

Gure enpresak horren aurrean soluzio bat jarri nahi du, parking pribatu zein publikoetan kargadoreak eskainiz kotxe elektriko edo hibrido dituen erabiltzaile guztiei.

Kotxe elektrikoen jabeek beren autoak kargatzeko erraztasunak eman ez ezik, jendeari kotxe elektrikoak erabiltzea bultzatzea ere da gure helburua, ekologikoago izanez eta ingurunearekiko erantzukizunez jardunez.

Gure enpresak besteek eskaintzen ez dituzten eta besteetatik desberdintzen dituen zenbait balore ditu:

Nagusiki, gure enpresak **nobedadea** eskaintzen du. Lehenengo aldiz, biztanle guztiek izango dute kotxe elektrikoak kargatzeko aukera: aparkaleku finko edo pribatu bat duten pertsonak auto elektrikoentzat kargadore finkoa edukitzeko aukera izango dute. Hortaz gain, kaleko aparkaleku publikoak erabiltzen dituzten pertsonak ere edukiko dute aukera kargadore elektriko hauetaz baliatzeko.

Horrela, inor ez da kezkatuta egon beharko bateriarekin, nonahi eta noiznahi edukiko dutelako beren kotxea kargatzeko aukera.

Bestalde, **erabilerraztasuna** eta **lana erraztea**. Izan ere, gure zerbitzua denon eskura jarriko da eta edonon aurki daiteke. Gainera, garajea dutenek, kotxea gauetan erabiltzen ez denez, gauetan kargatzeko aukera izango dute kotxea aparkatuta dagoen bitartean. Beraz, gauero kargatuko da, eta egunean zehar erabiltzaileek ez dute bateriaren adi egon beharrik.

Ordea, garajea ez dutenentzat, kargadore unibertsal bat sortuko dugu. Horrela, kantitate gehiago izango dute autoak kargatzeko, eta ezingo dira nahastu bakarria egongo delako.

Hori gutxi balitz, **diseinua** ez ezik **pertsonalizazioa** eta **espezifikotasuna** ere dira gure enpresaren ezaugarriak. Kargadore mota / diseinu ezberdinak egongo dira kotxearen arabera: bai kotxe hibridoa dutenentzat eta bai kotxe elektrikoa dutenentzat. Diseinu ezberdinak dituztenez, kargadore mota ezberdinak eskainiko ditugu denek kotxea kargatzeko aukera izan dezaten.

Irisgarritasunari (eskuratzeoko aukera) dagokionez, kalean gidatu ahala, hainbat plaza publikoetan kargadoreak izatea ahalbidetuko dugu, beharra sortuko denerako. Honez gain, parking pribatuetako plazetan hainbat kargadore ipiniko ditugu. Horrela, erosketak egiten dituzun bitartean besteak beste, autoa kargatzen egongo da.

Hirietan zehar hainbat kargadore unibertsal ipiniko ditugu, sakabanaturik.

Prezioari helduz, erabileraren arabera bi kargadore mota ipini nahi ditugunez, bi prezio finkatuko ditugu, bezeroei ordaintzeko laguntzak emanez:

- Aparkaleku finko edo pribatu bat dutenek, hilabetero ordainduko dute kuota finko batez.
- Kargadorea momentu aterako erabiliko dutenek, kotxea kargatzen edukitako denboraren arabera ordainduko dute (elektrizitatea bezala, gehiago erabiliz gehiago ordaindu) plaza publikoetan, aparkaleku barrutan....

Guk **zeharkako** eta **zuzeneko salmenta** erabiliko dugu: kargadorea erabiltzen duten aldiko kobratu batzuei (zuzenekoa) eta besteei hileroko (zeharkakoa). Gainera, **arriskua murriztuko** dugu: kotxe elektrikoetan gasolina erabiltzen ez denez gasolinak ez du konbustionatuko, sute arriskua gutxituz.

Marka edo Statusaren ikuspuntutik, kotxe elektriko bat edukitzeak, statusa ematen dizu, ingurunearekiko ardura duzula adieraziz. Honela, erabiltzaileek guregan konfiantza izango dute, gure kargadoreak erabiliz.

Azkenik, **onurei** dagokionean, gizartean eta ingurunean onura handiak ekarriko ditugu. Auto elektrikoek erabilera handiagoa izatea eragingo du erraztasunak jartzen ditugulako. Kotxe elektrikoek gainera, ez dituzte CO2 emisioak eta soinu kontaminazioa murrizten dute.